

## Hernaniko mapa berria aurkeztuko da gaur

■ Mapa toponimikoa (lekuen izenak) udaleko hirigintza sailak agindu eta Luis del Barriok egin du ■ Biterin aurkeztuko du, 19:30etan.

HERNANIK badu mapa berria. Lehenbiziko lana, hartu aurreko mapa eta hura konprobatzea izan da; gero, etxe, bide eta gainerako gauza berriekin osatu du Luis del Barriok. Digitaleko bertsioa ere egin du udalarentzat.

### IZENAK EZ GALTZEKO


Mapa berriak probetu asko ditu, egilearen ustez. 1) Garai batean bai, baina, orain erabiltzen ez diren leku izenak jasotzea: "Bestela, denbora gutxi barru galdu egingo dira."

### JENDEAK OSATZEKO

Jendeari *sua* piztea da mapa berriaren beste helburu bat. Mapa ikusi, aztertu eta berek dakitenarekin kontrastatuz, oraindik eta gehiago osatzea. "Nik egindakoa, jendeari entzuna eta dokumentatua da" - Barriok- "baina, hala ere, beti egoten da batek hari hola deitzen diola, besteak beti hala esan izan diola... hori dena bildu eta jaso egin behar da." Horretarako nahi du jendeak mapa berria ondo miatzea.

### LEHENBIZIKO ERREKA, POTOTXAERREKA...

1000 izenetik gora (etxe, erreka, mendi, bide...) azaltzen dira mapa berrian. Horietatik asko zelebreek gainera: *Apai-zerreka, Izoztegi, Jibraltar, Koronelarri, Lehenbiziko erre-*



Mapa toponimiko berrian lekuen izenak datoz, kurioso asko.

*ka, Lepatxiki, Montebideo, Montefrio, Purgatorioko erreka, Txatxutegi, Putzuzar, Fraileosiña, Frantsezbasoa, Kata-motzarri...*

### ESKURTSIOA

Oraindik erabat ziurtatua ez badago ere, litekeena da mapa hartu eta hor jarritako lekuren

batzuetara bisitan joatea. *Akolako dolmenak, kobazuloak, harrobiak...* bada hernaniarrek gutxi ezagutzen omen dituzten nora joana.

Bestalde, "ikastetxeentzat da mapa oso interesgarria"-dio Barriok- umeek ere Hernanin barrena izenetik izenera joaten ikasi dezaten. □

### PIANO KONTZERTUA

## Marta Zuñiga eta Anna Alemany Sandiusterrin

■ Brahms-en lau obra eskeiniko dituzte; bi, lau eskutara ■ Gaur arratsaldeko 19:00etan.

MARTA eta Annak bigarren kontzertua dute elkarrekin; lehenengoa atzo, Bartzelonan. Marta 22 urteko hernaniarra, lehen urteak hemen eginda goi mailako piano ikasketak Bartzelonan burutzen ari da. Anna 24 urteko bartzelonarra, goi mailako

ikasketak burutzen ari da hau ere.

### GAURKO KONTZERTUA

Lehen bi piezak lau eskutara joko dituzte (biak piano berean). Bukatzeko bakoitzak pieza bat. Kamarako musika jotzen dute, musika klasikoa. □

## Peña Otañok txirrindulari taldea atera nahi du

■ 1983-1990 artean jaiok behar dute ■ Azaroaren 27an da zita Peña Otañon, 20:30etan.

PEÑA OTAÑOKO J.O.C.C. elkarteak gazteekin txirrindulari taldeak osatzekotan dabil. Deialdia herriko 10 eta 17 urte bitarteko neska-mutilei dago

zuzendua. Bizikletan ibiltzea gustatzen bazaizue, badakizue: azaroaren 27an, 20:30etan, Peña Otañora azaldu. Onddi kalea, 1 ☎ 943-555263. □

## Igerilari eta gurasoek urteroko bazkaria dute

■ Abenduaren 3an egingo dute ■ Helduek konpetizioa dute datorren larunbatean Hernanin.

IGERIKETA elkarteak urtero bazkaria antolatzen du herriko igerilari eta gurasoekin. Bazkalondoan saribanaketa izaten da: ekipoko errekorrak... Udal jangelan izango da. Nola nahi ere, izena emateko-eta, guraso-

ei oharra bidaliko die elkarteak umeen bidez. Iaz 140 lagun bildu omen ziren.

Bestalde, Gipuzkoako Txapelketa jokatzeko denborak lortzeko probak hasiak dira. Larunbatean, kiroldegian. □

## Gure Txoko-Ur Mia finala Soziedade arteko Mus Txapelketan

■ Gaur jokatuko da Gure Txoko elkartearen 21:00etan.

FINALAURREKOAK jokatzen zirenean soziedade arteko mus txapelketan. Gure Txokok Elur Txori hartu zuen mendean, eta Ur Miak egin zituen Peña Otañorekikoak.

Gaur finala eta 3-4 postuak jokatuko dira. Sari banaketa, berriz, larunbatean izango da Gure Txoko elkartearen bertan, afaritan. Parte hartu duten hogeitaz bihurtzeko izango dute afaltzera joateko aukera. □




Muslariak asteartean, Gure Txokon; artean serio.

## Itziar Zubizarretaren ipuin kontaketa atzeratu egin da

Osasun arazoak tarteko, Itziarrek ezin izan du etorri. Gaur zortzi izango da, azaroaren 30ean.

**Jatetxea**



*Venta Berri*  
Arano - Nafarroa  
(948) 51 40 18  
LARUNBATETAN ITXITA

**HATOR**  
AHOLKULARITZA

Asesoria

**HATOR**  
Aseguruak

Fiskala  
Laborala  
Kontablea  
Administratiboa

Kardaberaz 60  
Tel. 943. 55 43 12  
20120 HERNANI



## AMAIA ETA "BIXEN" SEXOLOGOEN BERRIKETAN

### "Jendea larrua jotzeko arazoak dituenen bakarrik joaten da sexologoarengana"

- Harremanetarako zailtasun handiak ditugula diote; bai gazteek bai helduek
- Heziketa: ikastetxe eta gurasoek "minimoa" egiten omen dute.



Bixen eta Amaia, Sustrai sexologi elkartearen kideak berrikeretan, sultu.

SEXOLOGIAREN gaia, jendearen kezka eta oraingo egoera aztertzeko, Bixen Ezeiza eta Amaia Makazaga sexologoengana jo dugu iritzi eske.

#### ■ KRONIKA: Zein joaten da sexologoaren kontsultara.

AMAIA ETA BIXEN: Benetan gaizki dagoenean bakarrik joaten da jendea kontsultetara: bikoteetan komunikazio arazo oso serioak daudenean, larrua jotzeko arazoak daudenean... jendea ez da harremanen kalitatea nola hobetu ikastera joaten.

#### ■ Komunikatzeko arazoak al ditugu ba?

Gure arteko harremanetan zailtasun handiak ditugu: drogak edo alkohola tartean ez badira nekez lortzen dugu komunikatzea; eta ez gazteek bakarrik, baita helduek ere.

#### ■ Erremedioa?

Jendeak hortik ateratzeko gogoia izatea; lan pertsonala egin behar da. Heziketa oso garrantzitsua da; gurasoek txipa aldatu behar dute, baina ez dituzte gauzak argi...

Gurasoek seme-alabei haurdun ez gelditzeko bideak erakustea nahi dute, eta plazerra bigarren mailan gelditzen da.

#### ■ Baina, gaur egun ikastetxeetan ere ematen da sexologia.

Bai baina minimoa. Ikas-turtean 8-10 ordu eta kitto! Ez dago heziketa plan bat garatzeko denborarik. Gazteek gertuko jarraipen bat behar dute: bikoteak direla, harremanak direla... erabaki egokiak hartzeko orientazioa behar dute eta gainean egotea.

Gazteek komunikabideetatik jasotzen dute informazio asko; hor ez da inor haurdun gelditzen. Gipuzkoan haurdun gelditzen diren 117 emakume gazteetatik batek abortatu egiten du gutxi gorabehera; eta hori legez kanpo edo kanpora joanda abortatzen dutenak kontutan hartu gabe.

#### ■ Kanpaina bereziak?

Kanpainen alternatiba baktzat kondoa jartzen dute, bai gaitzen aurkako, haurdun ez gelditzeko... baina kondoiak ere puskatzen dira, eta sexu mota bakarrera garamatzate. Arazoa asenta-tzen ari dira, ez benetako soluzioa ematen; gozatzeko alternatibak eman behar zaizkio jendeari. □

## HITZ BITAN



Musika Eskolako gazte bat pianoa jotzen, Sandiusterrin bete jenderen aurrean.

#### ✓ SANTA ZEZILIA KONTZERTUAK

**Musika Eskolakoak Sandiusterrin eta Kantuz kalean, atzo.** 100 musikaririk gora aritu ziren atzo, asteazkenean, Santa Zezilia kontzertuan: pianoa, biolina, Saxofoia, trikiti-xa, akordeoia, abesbatza... Aretoan, berriz, ez zen txinguririk kabitzen. *Kantuz* korukoak kalea animatzen ibili ziren, tartean pintxo batzuk janez. Datorren larunbatean izango dute kontzertua txistulariekin batera. Sandiusterrin, 19:00etan.

#### ✓ UDAL AURREKONTUA

#### Adindu, gazte eta merkatarien inbertsioak gaur.

Udalak astelehenean hasi zituen datorren urteko inbertsioak eztabaidatzeko azken fasea. Astelehenean, hezkuntza eta kulturako proiektuak aztertu ziren; asteartean, emakume eta auzoetakoak; asteazkenean, kirol eta euskara mundukoak; gaur, berriz, adinduen, gazteen eta merkatarien inguruko proiektuetan hitz egingo da. Bilerak, udaletxean bertan dira. 20:00etan adindu eta gazteena, eta 21:00etan merkatariena.

#### ✓ 3/4 PLATAFORMA

**Kontzentrazioa gaur Plaza Berrin.** Hernaniko 3/4 plataformak kontzentrazio isila egingo du Zigorren hiru laurdenak bete dituzten herriko hiru preso askatasuna eskatzeko. Joxan Pagola *Beltza*, Pakito Lujanbio eta Xabier Arnaizek beteak dituzte.

#### ✓ EUSKARA ELKARTEEN TOPAGUGENA

**Neguko Olinpiadak gazteentzat.** Datorren larunbatean Itsasondo izango dira. Bazkaria eta autobusa 500 Pta. Izena emateko Dobera elkartera jo. ☎ 943-332799. □

## ASTEBURUKO EMAITZAK (ESKOLARTEKO KIROLA)



ESKOLARTEKO kirola puri purian da; ez da larunbat goizetan kiroldegira azaldu besterik, hortaz jabetzeko. Gaur, osteguna, konbenioa sinatuko dute Hernaniko kirol klubek eta lau ikaste-txeek, aurrera ere elkarlanean jarraitzeko. □

**Argazkian alebin mailako boleiboleko bi talde, partiduko lehen jokoa bukatuta. Langilek Urumeari 3 eta 0 irabazi zion partidua honetan, baina, ez izerditu gabe!**

#### ■ BOLEIBOLA

<i>Neska kadeteak:</i>	
Langile	3
Fortuna	0
<i>Neska infantilak:</i>	
Langile	3
Urumea	1
Laskorain	3
Urumea	0
<i>Neska alebinak:</i>	
Langile B	3
Elizatxo B	0
Urumea	0
Langile A	3

#### ■ ESKUBALOIA

<i>Mutil alebinak:</i>	
Udarregi A	4
Elizatxo A	0
Udarregi D	2
Urumea	2
<i>Benjaminak:</i>	
Urumea	3
Langile C	1
Elizatxo B	3
Elizatxo A	1
Langile A	3
Langile B	2

#### ■ ERRUGBIA

<i>Benjaminak:</i>	
Inmaculada	2
Langile B	2
Urumea	3
Langile A	0
Elizatxo A	4
Elizatxo B	0
<b>■ FUTBOLA</b>	
<i>Mutil infantilak:</i>	
Urumea	3
Alkartasuna	4
Aralar 7-Langile 2	

#### ■ SASKIBALOIA

<i>Alebinak:</i>	
Altza	34
Inmaculada	32
Jesuitas A	18
Langile B	16
S. Luis Lasalle	17
Langile A	50
<b>■ PELOTA</b>	
<i>Infantilak:</i>	
Elizatxo 3	18
Elizatxo 1	0

Urumea 1	13
Elizatxo 2	18
Langile 1	18
Langile 2	12
Elizatxo 1	18
Langile 2	13
<i>Alebinak:</i>	
Elizatxo 1	2
Elizatxo 3	5
Urumea 1	0
Langile 3	5
Langile 1	1
Langile 4	5
Elizatxo 2	4
Urumea 2	5

## HERIOTZAK

Ageda Zabala Juanikorena  
Asteartean hil zen 94 urte zituela.


#### ❖ ERAKUSKETA

**Alberto Elosegiren argazkiak.**  
Txema tabernan.

**Vietnam-i buruzko argazki erakusketa**  
Zumardi tabernan.

**Arantxa Samsoren marrazki erakusketa**  
18:00-20:00.

**Arantxa Samsoren marrazkia, Biterin.**



## ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak:	943 550093
▶ Udaltzaingoa:	943 333288
▶ DYA:	943 464622
▶ Autobusak	943 556662
▶ Anbulatorioa:	943 557750

#### ☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Chucla	Kardaberaz, 48
	☎ 943 551793
▶ Gaez: Chucla	Kardaberaz, 48
	☎ 943 551793